

KONTU KONTARI

BEGIRALEAK ETA ANTZERKI KAIERAK

Donibane Lohizuneko Begiraleak elkartea 1935. urtean sortu zen. Sortzaileak lau emazte gartsu izan ziren: Madalena Jaurregiberri, Elise Aramendi, Madalena Bribet eta Antoinette Lakarra. Haien asmoa Hegoaldeko *"Emakume Abertzale Batza"*-ren antzeko mugimendu euskaltzalea sortzea zen, euskara euskal kultura eta fede giristinoa zabaltzeko. Lehen lehendakaria Elise Aramendi izan zen hogeita hamar urte luzez.

Hasiera-hasieratik antzerkia izan zen elkartearen zutabeetako bat, antzerkia haien helburuak lantzeko lanabes ezin hobea baitzen. Hastapenetan komedia herrikoiak taularatu zituzten eta horretarako Lapurdin ziren antzerki-idazle onenen lanak eskuratu, jorratu eta jokatu zituzten.

1935eo martxoaren 3an, Begiraleak elkartearen antzerki taldeak Hillau anderearen *"Supazter xokoan"* jokatu zuen Donibane Lohizuneko Gure Etxea antzokian. Urte bereko ekainaren 2an, idazle beraren *"Egiazko eskualdunak"* jokatu zuen eta

agorrilaren 10ean frantsesez idatziriko *“Eskual Herriari / Au Pays Basque”* izenekoa. 1936ko martxoaren 28an eta ekainaren 14an Dominique Soubelet kanonigoaren *“Xuriketa egile kalakariak”* eta Piarres Lafitteren *“Amerikanoa”* antzestu zituzten. 1937ko martxoaren 28an eta ekainaren 13an Jean Barbierren *“Kauserak eta kruxpetak”* komedia eta Piarres Lafitteren *“Eskualdunak menderez mende”*. 1939ko apirilaren 9an eta maiatzaren 14an Iratzederren *“Ithurria”* komedia eta Lamarque apezak frantsesez idatziriko eta Piarres Lafittek euskaraturiko *“Madalena Larralde”* izeneko drama giristinoa.

1941eko ekainaren 1ean Iratzederren *“Harrapailu”* izeneko antzerki satirikoa eta Ttanpiren *“Katixaren besta”* taularatu zituzten. Urte bereko abenduaren 25ean Leon leonen *“Haurraren azken bitza”* izenekoa. 1942ko urtarrilaren 11n, Iratzederren *“Eguerri”* eta urte bereko maiatzaren 10ean, idazle beraren *“Eguerri, artzain ttikiena”* izenekoa. 1945eko abenduaren 30ean *“Egiatzko eskualdunak”* obraren errepikapena eman zuten.

1947ko maiatzaren 18an Iratzederren eta Gabriel Lertxundiren *“Bortutik oihu”* izeneko poema lirikoa. 1948ko urtarrilaren 17an Pierre Lotiren *“Ramuntxo”* eleberrian oinarrituriko antzerkia. 1950eko urtarrilaren 8an

1950eko urtarrilaren 8an, *“Eguerri”*-ren errepikapena taularatu zuten. 1951ko maiatzaren 3an eta 6an, J. Otegi ezizenaz sinatzen zuen Jannick Aramendiren *“Hautsaren azpian”*. 1953ko urtarrilaren 18an Telesforo Monzonen *“Harpeko bozkari”* eta *“Ur garbi”* antzezlanak. 1954ko maiatzaren 27an Monzonen *“Zurgin zabar”* komedia. 1955etik 1958ra idazle beraren *“Mendiatarrak”* ospetsua eta *“Lau kantari eta txori bat”*. 1959an *“Mendiatarrak”* obraren errepikapena Parisen jokatu zuten.

1945. urtetik aitzina, Begiraleak antzerki taldeak dantza, kantua eta antzerkia nahasten zituen emankizunak prestatu eta taularatu zituen. 1947ko agorrilaren 3an eta 1960ko agorrilaren

10ean *“Etxe sartze / Euskal ezteia”* izenekoa plazaratu zuten arrakasta handia erdietsiz. 1948ko agorrilaren 28an eta 1953ko uztailaren 26an *“Sopiteren itzulera”*. 1949ko agorrilaren 14an *“Biribil”* izenekoa. Emankizun hauek sona handia ukan zuten donibandarren artean, eta haien prestakuntzan Labout, Aita Donostia edo Gabriel Lertxundi bezalako musikari handiak parte hartu zuten.

60-ko hamarkadan Joselu Berasategik Begiraleak elkartearen dantza taldea birmoldatu eta indartu zuen. Hamarkada hartan bi antzezlan jokatu zituzten: *“Bakoitza bere kutxan”* eta *“Zazpi ixtorio eta kantatu bat”*.

1995. urtean, elkartearen 60. urteurrena zela eta, Xabier Soubeletek idatzirik *“Begiraleak”* izeneko antzezlanak jokatu zuten. Geroztik Begiraleak elkarteak ez du antzerkirik jokatu. Gaur egun elkarte honek euskal kulturaren aldeko indar handia egiten jarraitzen du. Badu dantza talde indartsua, eta euskal dantzaz gain, kantuaz, gastronomiaz, etnografiak eta euskaraz aritzen diren sailak ditu. Elkarteak 180 kide inguru ditu eta Donibane Lohizuneko euskal kulturaren ezinbesteko erreferentzia da.

Arestian aipatu dudana bezala, 1995. urtetik Begiraleak elkarteak ez du antzerkirik jokatu, eta antzerkigintzaren urte oparo haietan erabilitako antzerki kaierak, gehien-gehienak eskuz idatzitakoak, elkarteko armairu batean gordeta gelditu ziren. Antzerki kaiera horietako ainitz elkartearen antzerki taldeak jokatu zituenak baziren ere, baziren bestelako ugari ere. Armairuan ongi atxikirik izan ziren eta elkartekidek armairuan gordetakoaren oroitzapena eta baita kako bera ere galdu zituzten. 2007. urtean elkartearen lehendakari zen Xabier Soubeletek armairuaren sarraila indarrez zabaldu eta kaierak topatu zituen. Elkartearen Etnografia Sailak argitaratzea erabaki zuen eta testuak transkribatu ondoren Hiria argitaletxearen bidez plazaratu zituen.

2009ko martxoan, Begiraleak elkartearen antzerki taldeak jokaturako zortzi antzezlez osaturako *“Iratzederren antzerki kaierak”* izenekoak kaleratu zuten. Honakoak: *Bortutik oihu, Etxe xokoan, Eguerri, Eguerri artzain tikiena, Itsasora, Moda zabarreko ezkontza* eta *Harrapailu*. Urte bereko abenduan, *“Lafitteren antzerki kaierak”* plazaratu zuen. Barruan honako zazpi antzezlanak zeuden: *Maritxuren kondaira, Amerikanoa, Frantzisko Xabier, Madalena Larralde* eta *Eskualdunak menderez mende*.



Xabier Iratzeder



Piarres Lafitte

2010ean, *“Larzabalen antzerki kaierak”* liburu mamitsua atera zuen. Piarres Larzabalen antzerki identitarioari buruzko tesiaren bitartez, Bordeaux III Montagne Unibertsitatean doktore titulua duen Ixabel Etxeberria urruñarrak *Euskal nortasuna hobestuz* izeneko sarrera zabal eta aberatsa egin zion. Liburuaren barruan zazpi antzezlan zeuden: *Orreaga, Bereterretx, Matas, Lartaun, Sarako Lorea, Orria 778* eta *Ibañeta*.

2011ko martxoan, *“Monzonen antzerki kaierak”* izenekoak plazaratu zuen. Hau ere sobera mardula eta aberatsa. Euskal

antzerkian doktore den Ixabel Etxeberriak *Euskal kultura goi mailara* izenburuko sarrera mundiala egin zion. Barruan sei antzezlan zekartzan: *Ur garbi, Lau kantari eta txori bat, Gure behia hila da, menditarrak, Eneko Bizkai eta Maria Lorca* eta bukatzeko, *Hazparneko Andere ospetsua*.



Telesforo Monzon



Piarres Larzabal

Eta bildumari bukaera emateko, 2011ko abenduan, “*Sei antzerkigileren kaierak*” liburua plazaratu zuen elkarteak. Bertan sei antzezlan azaltzen ziren:

Leon Leonen *Haurrak azken hitza bere*, Jean Barbierren *Kauserak edo kruxpetak*, Hillau anderearen *Vichy ala Abüzki?*, Jannick Aramendiren *Hautsaren azpian*, Dominique Soubelet kanonigoaren *Xuriketa-egile kalakariak* eta Iratzederren *Fededunen arbasoa*.

Begiraleak elkarteak liburu hauek argitaratzean sekulako ekarpena egin die euskal antzerkigintzari, Lapurdiri eta Euskal Herri osoari. Ene ustez, bilduma hau garai haietako lapurtarren

idazmoldea, pentsamoldea eta bizimodua aztertzeko guztiz garrantzitsua da, ezinbesteko erreferentzia. Ipar Euskal Herrian badira horrelako testu ainitz gordeta eta erdi ahantzita, bai antzezlanak, bai kantuak, bai bertso eta olerkiak... Euskara gaur pairatzen ari den egoera larri honetan horrela egotea normala iruditzen zaigun arren, indar bat egin beharko genuke biltzeko eta argitaratzeko, gaur egiten duguna biharkoen oinarria izanen baita.

Euskara indartuko da, Euskal Herriak autogobernua ezagutuko du, eta geroaldi oparo horretan, aurreko belaunaldiek egindakoa ezagutu nahi eta beharko dute. Begiraleak elkar-teak egin duen bidea txalogarria izateaz gain, eredutzat hartu beharko genuke denok. Geroa euskaraz heldu da! Ezina ekin ez eginga!

Joseba Aurkenerena Barandiaran